



2005eko Sagarrondotik jaialdia Urnietan

Sagar biltzen eta beste hainbat herri kirolean aritu ziren Urnieta, Herriani, Astigarraga eta Usurbilgo herritarrek Sagarrondotik festan, martxoaren hasieran. Sagardoa, sagardotegiak eta sagarraren inguruko jokak eta ekitaldiak izan ziren nagusi Sagarrondotik festan. ◀

ARI GARAIALDE / ARGAZKI PRESS

Buruntzaldea astigarraga



AINHOA ARTETA, Petrítegi sagardotegian, sagardo denboraldiari hasiera eman zion ekitaldian, urtarrilean. JON URBE / ARGAZKI PRESS

Urteko lehen sagardoa dastatu zuen Artetak

Tolosako Ainhoa Arteta sopranoak hasi zuen Astigarragako aurtengo sagardo denboraldia, Petrítegi sagardotegian

Urtero ohikoa izaten da jende ezagunari ohore hori eskaintzea, eta aurtur Tolosako kantariaren txanda izan da. Kantuz hasi zen eguna, eta kantuz zen, ziurrenik, bukatu. Telebistako kamera eta argazkilarien aurrean esan zuen Ainhoa Arteta sopranoak, irribarrez eta edalontzia eskuan, «hau da sagardo berria». Astigarragako zela esatea ahaztu zitzaion. Geroago jakin ahal izan denez, gripeak jota zegoen egun hartan. Ezin beste ezer izan, Ainhoa Artetaren mailako kantariak ez baitute sekula partitura ahazten.

Tolosarraren izena betiko geratuko da idatzita Sagardo Berriaren Egunean parte hartu

duten pertsona ezagunen artean. Bera baino lehen, denboraldiko lehen tragoa edanak ziren Miguel Indurain, Martin Fiz, Pedro Miguel Etxenike edo Juan Mari Arzak besteak beste.

Lehenengo upela zabaldu zuten

Lehenengo upela ireki ondoren, ez zen inor geratu hango zukua probatu gabe. Trago eta trago artean giroa alaitzen hasi zen, eta sagardotegian egonda ezin bertsolariak falta, noski. Baina urtarrilaren 12koa ez zen edozein egun, eta bertsolariak ere ezin izango ziren erdipurdikoak. Horregatik, lan hauetan zertxobait dakitenak ekarri zituzten

Petrítegi sagardotegira: Sebastian Lizaso eta Andoni Egaña. Eguneko bi protagonistei (Ainhoa Artetari eta sagardoari) kantatu zieten bertsolariak,

ahots onak eta sagardo berriak sortzen duten emozioa azpimarratuz.

Hurrengo egunetan ere entzun beharko zituzten Asti-

UZTA ONA

Aurtengo sagardoa kalitate handikoa izan da, sagar uzta azkeneko urteetako onena izan delako

garragako bizilagunek sagardoarekin liluratutako jendearen bertsuak. Kaskarragoak, hori bai.

Kalitate handiko sagardoa

Aurkezpenak aurkezpen, 2005. urtean Astigarragan dastatu ahal izan den sagardoa kalitate handikoa izan da, neurri handi batean sagar uzta azken urteetako onena izan delako. Edari kontuetan moko fina duenak ez du ahaztuko aurtengo sagardoa izan duen zapora zitrikoa; adituen ustez, fruta berdearen antzeko usaina eduki du.

Denboraldi honetan Astigarragatik pasatu direnek edan duten produktua neurri handi batean Euskal Herriko sagarrekina eginga dago, gainera. Erabilitako fruituen erdiak bertan jasotakoa izan dira, eta guztira 15.000.000 litro ekoitzi dituzte; erdiak, Astigarraga, Hernani eta inguruetan.

Sagardoa ez da, hala ere, Gipuzkoan bakarrik edaten. Sagardun partzuergoak Sagardo Berriaren Egunean azaldu zenez, 2005. urtean merkatu berriak sortu dira aurtur Madril, Katalunia, Paris, Mediterraneoan itsasertzean eta Akitanian.



MAPFRE
ASEGUROAK



Mujika Tolaretxipi Anaiak

Col. n° 55574

Eskola kalea, 8 - 20140 Andoain (Gipuzkoa)
Tel.: 943 592 307 - Mugikorra 635 729 424
Faxa: 943 300 161 - gailen@euskalnet.net

Lea Artibai Ikastetxea

HEZKUNTZA ESKAINTZA

- > BATXILERGOAK
- > PRESTAKUNTZA ZIKLOAK
- > POLIMEROEN INJENIERITZA
- > ETENGABEKO HEZIKETA IKASTAROA
- > INEM ETA LAN SAILEKO IKASTAROA



> ZERBITZU TEKNIKOAK

> ENPRESA PROIEKTUAK

> I+D

> LANERATZE ETA ORIENTAZIO ZERBITZUA



lea artibai
IKASTETXEA



M HONORACION
KONPANIEN KONTRAKO

Xemein Etorbidea, 19. 48270 Markina-Xemein. Bizkaia Tf. 94 616 90 02 faxa. 94 616 91 60 www.leartik.com